

ETXERAKO bidean
LIBRE
izan nahidut,
EZ AUSART!



Alabak ahaldundu... eta semeak?

Ez dute berdin bizi kalea neskek eta mutilek, herriaz gozatzeko askeago eta lasaiago sentitzen dira mutilak. Indarkeria jasateko beldurra du emakumeak eta belaunez belaun transmititu egiten da. Batik bat amak arduratzen dira alabari ezer gerta ez dakion zaintzeaz, babestu nahi eta era berean askatasuna eman nahiaren arteko oreka mantendu ezinean. Semeak beste film batean bizi dira. Lasai ateratzen dira kalera, gurasoek ere ez dute uste ezer gertatuko zaienik. Eta beste kontu bat: gizonak dira indarkeriaren eragile, baina semeekin ez da horretaz hitz egiten.



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

Lurdes Barragan hernaniarra Auritzen (ez da egiazko izena) ama da. Auritzek 18 urte ditu eta Gasteizen pasatzen du astea, ikastera joan baita. Barraganek eta senarrak etxean beti landu izan dute genero ikuspegia alabarekin. Ikasketxean izandako esperientziak berriz, etxean bizitakoari asko lagundu diola uste du Auritzen amak. Alabak 10 bat urte zituenetik Hernaniko Langile Ikastolan Arremanitz Kooperatibak saioak eskaini ditu sexualitateaz, tratatu onez eta berdintasunaz. 15-16 urterekin Lilleta taldea sortu zuten eskolan hainbat neska-mutilek, Auritz tartean. Emaku-



DANI BLANCO

me izatea zer den jabetuta dago, ez zaio arrotz feminismoa. Haurrak eskolatik zekarren genero ikuspegiaren lanketak eraman zituen bere gurasoak bide berean jarraitzera.

Ikastetxean Arremanitz Kooperatibaren laguntza zuten bitartean etxean zertan ari ziren? Amak erlijioak bere bizitzan izan duen zama azpimarratu du, erlijioak transmititzen duen eredu patriarkala. Erlijioaz gain, gizartea bera ere patriarkala dela gaineratu du. “Gure eguneroko gaiak ziren bekatua, erru sentazioa, zein gaizki portatu naizen, gu zaintzeko gaude...”. Alabari esaten dio zorte handia izan duela, zama hori ez duelako izan, eta amari aldiz asko kostatu zaio eta oraindik ere kostatzen zaio gainetik kentzea. Zamak beldurra eragiten du norberaren barnean eta bel-

durak nahigabe transmititzen dira hurrengo belaunaldietara. Bere alaba bakarrari mutila balitz bezala hitz egiten saiatu da: “Mutilari bezala esaten diot ‘ondo pasa!’, baina beti daukazu buruan ‘kontuz!’ edo ‘estali beti basoa eskuarekin *burundanga* eta horrelakoak dabil-tza-eta’. Ondo pasatzeko esaten diozu baina beti daukazu mezu subliminala prest: ‘kontuz!’, ‘ez etorri bakarrik!’”.

Gorka bakarrik doa etxera, Auritz lagunduta

Pena handiz kontatzen du ondoko pasartea, gurasoen beldurra eta kalera ateratzerakoan mutilen eta nesken arteko aldea agerian uzten du: Auritz zinemara joan zen sagardotegi garaian. Hernanin, sagardotegi garaia esan nahi du jende asko dabilela parranda giroan eta

guztiek ez dituztela tratatu onak praktikatzen. Senar-emazteak eta alaba plazan bertan bizi dira. Ama eta aita etxetik begira zeuden, alaba zein aldetatik etorriko. Halako batean alabak mezua idatzi zion mugikorrera: “Lasai ama, Gorkak esan dit lagunduko didala”. Gorkarekin agertu zen eta ama lasaitu zen. Pena handia sentitu zuen orduan Barragane, mutila bakarrik joango zen etxera, eta alabak laguntza eskatu zion etxera itzultzeko.

Parrandatik datorrenean logelara hurbildu eta iritsi dela esateko eskatua dio alabari. Alabaren gaztaroan ama sena berriz piztu zaiola dio Barragane. Auritz txikia zela, erraz esnatzen zen ama nahiz eta alboko logelan egon. Orain gauza bera gertatzen zaio, alaba gaez ateratzen denean erraz esnatzen

da buruan galdera bat duela, “etorri ote da?”. Ez dio grazia handirik egiten horrela erreazionatzek, baina ezin du saihestu. Azkenean, etxera heldutakoan esnatzeko eskatu zion, nahiz eta ez dagoen ziur erabakirik onena hartu duen.

Ama sena aipatu dugu, baina Barragani galdetu diogu egoera horietan aitzak zein jarrera hartzen duen: “Alabak aitari eskatzen badio gauean bila joateko aitzak baietz erantzuten dio, eta nik pentsatzen dut, ‘aitak bila joan behar du ala beraiek moldatu behar dute?’. Aita beti dago bila joateko prest”. Eta aitak zergatik hartzen du jarrera hori, bereziki alabagatik beldurra duelako ala orokorrean gaur egun gurasoek asko babesten dituztelako seme-alabak? Galderak ez du ezustean harrrapatu Auritzen ama, hausnarketa egina du: “Ez dakit zergatik den. Agian, aita edo ama zarenean gehiago beldurtzen zara eta beti txita biltzen zabilta. Baina agian gaur egungo egoerak beldur handiago ematen digu”.

Beldurra sentitzea

Hernaniarrak ez du zalantzarik beldurra barruraino sartuta duela. Kremlera ixten saiatzen da, beti horretan ez pentsatzeko eta alabari askatasuna emateko. Neguan beldur gutxiago izaten du alaba Hernanin ibiltzen delako eta gazte giroa kaxkoan bertan dagoelako, familia bizi den toki berean. Uda konplikatuagoa da, herriz herri jairik jai dabilta bere alaba eta lagunak. Argi dio Barragane, “pena ikaragarria ematen dit esateak, baina ama naizen heinean beldurra pasatzen dut”. Alabari galdetu izan dio ea berak beldurra pasatzen duen, eta baietz erantzuten dio.

Nolabait esatearren, umea txikia zenean bi heziketa moten artean bat aukeratzen saiatu ziren, edo beldurrean hezi haurra edo bizitzako mila esparrutan aurrera egiteko bultza. Bigarrena aukeratu zuten ama-aitek. Ume-gazteari ahalduntzeko laguntzea garrantzitsua dela uste du Barragane, nahiz eta bartzuetan oreka aurkitzea ez den erraza. Neurria hartzen ez badu, gaztetxoak mundua irentsiko duela sinetsi dezake, eta jarrera hori ez zaio egokia iruditzen amari.

Whatsapp ez nuela erabiliko baina...

Sakelako telefonoa kontrol mekanismo bikaina da. Hortaz jabetu da Barragan eta whatsapparekin bere buruhaustek



KALEA NIREA AL DA?

María Rodó de Zárate eta Jordi Estivill i Castanyk 70 neska eta mutil elkarrizketatu dituzte Barakaldon, Hernanin eta Gasteizen. Hortik ateratako lana ondokoa da: *¿La calle es mía? Poder, miedo y estrategias de empoderamiento de mujeres jóvenes en un espacio público hostil* (sarean doan dago). Euskaraz emana: *Kalea nirea al da?* Boterea, beldurra eta neska gazteak ahalduntzeko estrategiak etsaitasunezko eremu publikoan. Emakundek diruz lagundutako lana da, eta genero ikuspegia kontuan hartuta, eremu publikoa neska eta mutil gazteek nola bizi eta erabiltzen

duten aztertzen du. Generoak herriak, kaleak eta espazioak bizitzeko modua baldintzatzen du. Ikerketak beldurra zergatik sortzen den eta horrek emakumeek herria edo hiria bizitzekoan zein ondorio dituen aztertu du. Beldurrak emakumeen aurkako indarkeria nola iraunarazten duen azaltzen du. Beldurrak generoa duela azpimarratzen du ikerketak. Neskentzat espazio publikoak etsai giroa eta ziurgabetasun handiagoa du mutilentzat baino. Ondorio emozionalak eta askatasun mugatzeak askoz handiagoak dira emakumeentzat gizonentzat baino.

» LURDES BARRAGAN:

“Mutilari bezala esaten diot ‘ondo pasa!’, baina beti daukazu buruan ‘kontuz!’ edo ‘estali beti basoa eskuarekin burundanga eta horrelakoak dabilta-eta”

izan ditu. Xehetasun bat kontatu digu. Whatsappen besteek azken konexioa noiz egin duten ikusteko modua dago. Modu hori kentzea pentsatu zuen, besteek ikus ez zezaten bera noiz konektatzen zen eta noiz ez. Alabak aplikazio hori nola zeukan begiratu zuen eta konektatuta zeukala ikusi zuen. Bada, azkenean ez du deskonektatu, eta hala dio berak: “Telefonoa kontrol modua da eta lasaitzeko modua ere bai. Agian, alde txarrak gehiago ditu”.

Bikote harremanak, kalea bezain arriskutsu

Arremanitz Kooperatibako kide Axier Bagliettorekin espazio publikoa, gaz-

AXIER BAGLIETTO, SOZIOLOGOA**“SARRITAN SEMEEI EZ ZAIE EZER ESATEN, EDO ESATEKOTAN, NESKAK BABESTEKO”**

Axier Baglietto soziologoa Arremanitz Kooperatibako kidea da eta Urola bailarako Harremonak egitasmoa zuzendaria. Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako ikastetxe guztietan sexualitatea, parekidetasuna eta tratatu onak lantzen dituzte, batez ere ikasleekin. Hiru herrietako udalek diruz lagundutako programa da Harremonak. Bagliettok hainbat guraso ezagutu du eskaini dituzten hitzaldietan, eta batik bat, bi indarkeria kasu tarteko bereziki egindako lan saioetan.

Nola bizi dute gurasoek indarkeria beraien alaba-seeengan, eta nola jokatzeko dute?

Gurasoentzat hitzaldiak-eta antolatutako izan ditugu baina gutxi etortzen dira. Sexu erasoren bat gertatu denean berriz, eta Azpeitian bi gertatu dira (17 urteko neska batek sexu eraso saiakera jasan zuen eta Azpeitiko futbol zelaiko nesken aldagelen horman zuloak aurkitu zituzten), lanketa berezia egin dugu.

Bi saioak oso aberasgarriak izan dira. Normalean amak etortzen dira, nesken amak, mutilen gurasoek ez dute kezkarik sentitzen. Indarkeria kezka iturri da guraso batzuentzat, besteentzat baino gehiago, baina “zerbait egin beharra dago” esatera ez dira iristen, zerbait gertatzen den arte. Ez dira neurriak hartzen, ez dute esaten: “beharbada hasi beharko nuke ikusten ea nola daraman gai hau nire alabak/seeameak”. Ez da hitz egiten gertatu arte eta orduan izutzen gara eta laguntza bila goaz.

Beldurra sentitzeak zein ondorio du gurasoen jarreretan?

Nagusiki bi aukera daude beldurraren aurrean. Bata da beldurrak beldur aurrea egitea. Bestea da kikiltzea, askatasuna mugatzea, atzera egitea. Oraingoan, horrelakoak gertatu egingo dira, gainera guk ezagutzen ditugunak baino askoz gehiago eta anitzagoak dira. Lana ez da hasien beldurrari ezin eutsita gaudenean edo gertaera batek eztanda egiten duenean, lehenagotik baizik.

Familian gaia asko ez dela lantzen diozu, baina nola ez da landuko bada, gurasoak kezkatuta baldin badaude?

Landu bai, baina eremu partikularrean. Kontua da nik nola saihestu nire alaba arriskutik aldentzea. Beldurretik eta nik bakarrik zer egin dezaket? “3:00etan etorri eta lagunduta; telefonoa beti piztuta eduki; deituiozu hari...”. Erasoa saihesten arrakasta izango duzu ala ez, baina batez ere, beldur jarrera indartzen ari zara. Horrelako egoerak normalak direla onartzen ari gara, hori da gaia isiltasunean gelditu izanaren ondorioa. Aldiz, potentzialitatea hartzen du mahai gainean jartzen badugu eta aurre egiten badiogu.

Arazo soziala da, kontua ez da nire alabari zer gertatu zaion, erasotzaile hark zer egin duen. Denoi dagokigu honetaz hitz egitea.

17 urteko neskari eraso ziotenean gurasoekin egin zenuten saioa aberasgarria izan zela esan duzu.

Erasotzailea kanpotarra zen. Gurasoen saioan ikuspegi bat nagusitu zen: kanpotarrak dira, orain ari dira horrelakoak gertatzen... Kezka, beldurra, angustia sumatzen zen. Baina halako batean, amak jaietan eta gauetan emakume bezala jasanako indarkeriaz hitz egiten hasi ziren. Auzoko hura zela erasotzaile, eskolako hura. Bat-batean beste giro bat sortu zen. Konturatu ziren beti gertatu direla horrelakoak eta beti isildu direla.

Gurasoek zein aterabide proposatzen dituzte?

Zigorra eta kontrola. Erasotzaileak zigortu, kastratu, egin beharko dira eta balizko erasotua kate luze batekin lotu beharko dugu.

Gurasoak arriskua kalean kokatzen du. Zuk diozu indarkeria familian eta bikote harremanetan ere bizi-bizi dagoela.

Iruñeko jaietan alabari zer gertatuko kezkatuta daude gurasoak, ez dira konturatzen bikotean edo beste giro batean egoera okerragoa jasan dezaketela edo jasaten

ari direla. Agian, gurasoak ari dira pentsatzen, “zein ondo, mutila edukita parranda gutxiago egingo du”, eta beharbada indarkeria izugarria ari da jasaten bikotean.

Mutilekin egiten denak, edo hobe esan, egiten ez denak kezkatzen zaitu.

Zuk zure alaba kalera ateratzen denean zer esaten diozu? Kontuz, kontuz, kontuz... Eta semea zerbait esaten al diozu? Sarritan mutilei ez zaie ezer esaten, edo esatekotan, neskak babesteko. Garrantzitsua goa izan daiteke ordea, mutil taldeetan dituzten jarreraz galdetzea. Ea neskekiko jarrera desegokirik ikusten duten, nola sentitzen diren egoera batean aurre egin ahal izateko. Konplize ez izatearen garrantzia azpimarratu behar da, neskenengan enpatia sentitzen lagundu behar zaie.

Erasotzaile guztiak gizonak dira, zerbait egin beharko dugu, ezta? Indarkeria egoerak gertatzen direnean, egia da zaila egiten zaigula nola jokatu asmatzen. Erasotzailea edo konplizea zigortzen ikasi dugu, hari maitasuna ukatzen, lotsagarria dela esaten. Horrela jokatuta bideak ixten ditugu. Noski, semea egin duen horren ardura osoa eskatu behar diogu, baina agian ezin diogu maitasuna ukatu, ulermena ukatu.

Zein aholku orokor ematen diezue gurasoei?

Helduok garelako eredu esaten diegu. Indarkeriari aurre egin nahi badiogu, garrantzitsua da ikustea gazteek nolako harremanak bizi dituzten gertuko eremuan, familian. Hausnartu behar dugu familian eta haien heziketan nola kudeatzen dugun autoritatea, gatazkak, mugak maitasunez jartzen ditugun ala ez, gure burua zaintzen dugun ala ez, mehatxuak, xantaiak, kontrola onartzen dugun ala ez.

Bide onetik goazela uste al duzu?

Gaur egun honetaz hitz egitea izugarrizko lorpena da. Mendetako isiltasuna hausten ari gara. Hedabideetan eta inguruan aterratzen ari da eta hori sendatzen hasteko lehen pausoa da. Prozesu baten hastapenetan gaudela esango nuke.

teak eta beldurra landu dugu (ikus 25. orrialdeko atala) eta esan digu gurasoen kezka nagusia alabak eremu publikora ateratzea dela, baina indarkeria mingarriena eta etengabekoa familian eta bikote harremanetan bizi dutela. Auritzen amari galdetu diogu ea alor hori landu duten etxean. Beste pertsona batekiko menpekotasuna zer den landu zuten alabarekin txikiagoa zenean. Alkoholikoaren adibidea erabiltzen zuten azaltzeko: menpeko bihurtu zaitu, ondoan behar duzu, kontrola galdu duzu. Autoestimua zer den azaldu zioten alabari, “zuga ziurtasunik ez baduzu, burua bere tokian ez badaukazu, munduko neskarik politena izan zaitezke eta sudurrean atera zaizun granoa drama bat izan daiteke”. Gaizki tratatutako emakumea, indarkeria, zer den adierazteko herriko adibide errealak kontatzen zizkieten.

Semeekin ez al dago ezer lantzeko?

Barragani mutilez hitz egiteak beldur pixka bat ematen dio, berak semerik ez duelako. Hala ere, gaia atera izan da lagunartean eta berak semeen gurasoak lasaiago sumatzen ditu, arrisku gutxiago dutelako. Alabaina, Auritzen amari



Emakunderen kanpaina honek gurasoak izan zituen gogoan. Sarri neskak eta mutilak berdin hezten direla uste bada ere, kanpainako mezuek bestelakoa adierazten dute.

biktima ere izan daitezkeela, batez ere umetan. Barraganez gogoan du lagun batek kontatu ziona. Helduek haurrei egiten dizkieten gehiegikeriez hitz egin zuten ikastetxean. Etxean, mutikoaren amak gaia atera zuen eta semeari hasi zitzaion esaten ezezagunekin ez joateko eta abar. Semearen erantzuna, “hori neskentzat da, ama”. Eskolan haur denei berdin kontatu zieten baina ume hark ez zuen beretzat hartu. Gaur kezkaturatzen zuten umeak eta amak zalantza agertu zuen: “Agian oso bortitz hitz egin diot, baina mutikoa delako ez zaiola ezer gertatuko uste du, laino batean zegoen”. Eta Barraganez: “Mutilak babestuago sentitzen dira”. ■

iruditzen zaio semeekin haien jarrez gutxi hitz egiten dutela. Gurasoek ez omen dute hain argi semeekin gaia landu behar den ala ez, horrelako gogoetak dituzte: “Mutilak direlako ‘sanbenitoa’ jarri behar al diegu?”, “Mutilak direlako neskak gaizki tratatuko dituztela adierazi behar al diegu?”. Barraganez ustez, semeen gurasoek badute ardura, baina batzuetan guraso artean semeen gaia lantzea delikatu izaten omen da. Mutilak erasotzaile bihurtzen dira, baina sarri ez dira konturatzen gizonen